

EUSKADIKO OSASUN ETA INGURUMEN BEHATOKIA DISEINATZEA ETA ANTOLATZEA

Posted on 03/09/2024 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Behatoki digitalak](#), [Ingurumen behaketa eta monitorizazioa](#), [Ingurumen osasuna](#), [Observación y monitorización ambiental](#), [Observatorios digitales](#), [Salud ambiental](#)

Eusko Jaurlaritzako [Osasun Sailak](#) NAIDERen laguntza du Euskadiko Osasun eta Ingurumen Behatokia diseinatu eta garatzeko. Behatokia sortzea Osasuna eta Ingurumena kudeatzeko arloen helburu komuna da, eta aukera emango du ingurumen-inpaktuak hobeto ulertzeko eta Euskadiko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko erabakiak hartzeko eta politika eraginkorrak ezartzeko.

Euskadiko Osasun eta Ingurumen Behatokia sortzeko beharra EAEn osasunaren eta ingurumen-politiken arloan erreferentzia diren bi tresna estrategikotatik sortu da: [Euskadi 2030 Osasun Plana](#) eta [2030 Ingurumen Esparru Programa](#). Euskadi 2030 Osasun Plana hurrengo urteetan garatu beharreko osasun-politikak definitzen dituen ibilbide-orria da, Euskadi osasuntsuago bat gidatzeko. Era berean, Euskadiko Ingurumen Esparru Programak ingurumen-politiken zuzendaritza ezartzen du hamarkadaren amaierara arte, 2030erako lurralde iraunkorrago baterantz.

